

7/2020 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, ekainaren 16koa, zeinaren bidez egokitzekeo tributu-neurriak sartzen baitira sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan, COVID-19a dela-eta

Bizkaiko Foru Aldundiak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bidez aitortutako tributu-eskumenen barruan, Bizkaiko Lurralde Historikoan tributu arloko ezohiko zenbait neurri hartu ditu, COVID-19aren ondoriozko egungo osasun-larrialdia oro har zergadunen artean sortzen ari den inpaktu negatiboa arintzeko; izan ere, alarma-egoera deklaratu zenetik, murrizketa asko egin dira, eta, besteak beste, zirkulazio-askatasuna asko murriztu da.

Lehenengo fasean onetsi ziren, batetik, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea eta hura garatzeko eman ziren beste zenbait xedapen, eta, bestetik, apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzkoa. Xedapen horien bidez hartutako neurrien xede nagusia izan da zuzeneko zergetan tributu-tratamendu jakin batzuk aplikatzea baldintzatzen duten epeak malgutzea, egoera ahulenean dauden zergadunak babesteko, hala nola pertsona fisikoak, mikroenpresak eta enpresa txikiak, eta bat datoz gure inguruko herrialdeak hartzen ari direnen neurriekin.

Geroago, konfinamendua arintzeko fasea hasi zenean, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailea onetsi zen. Dekretu horretako zenbait manuren edukia Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako Bizkaia Aurrera! lurraldea sustatzeko planaren barruan sartzen dira. Plan horretan, Aldundiaren eskumenen barruan ekonomia suspertzeko koiunturazko neurri fiskalak jaso dira, «talka-neurri» deritzenak, hain zuzen. Ondoren, beste bi foru-dekretu arauemaile onetsi ziren, eta horien aplikazio-eremua zeharkako zergapetzearen eremura mugatzen da.

Horrela, adierazitako araudian jasotako xedapenak osatzeko helburuarekin, foru-dekretu arauemaile honetan zenbait neurri osagarri ezartzen dira. Neurri horien artean, azpimarratzekoa da sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua kendu zaiela krisi sanitarioak gehien eragin dien enpresei, beren likidezia urria are gehiago murriztu ez dadin. Gainera, izaera teknikoko zenbait doikuntza egin dira, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen artikuluetan ikusi diren oker bi zuzentzeko.

Foru-dekretu arauemaile honek 5 artikulua eta 3 azken xedapen ditu. 1. artikuluan, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailean ikusi ziren okerrak zuzentzen dira (aurreko paragrafoan aipatzen dira oker horiek). Lehenengo eta behin, 2019ko zergaldiko sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboaren ezohiko kenkariaren zenbatekoa zein kargamotarekin zatitu behar den ezartzeko kontuan hartu behar den ekitaldia aldatzen da (4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1. artikuluan adierazten da), dagozkion zenbatekoak zergadunaren zerga-oinarri negatiboa konpentsatzeko erabiltzen direnean; horrenbestez, 2019ko ekitaldia hartu behar da kontuan autolikidazioaren xede gisa. Bigarren, foru-dekretu arauemaile horren 2. artikuluko okerreko erreferentzia bat zuzentzen da, pertsona fisikoen

errentaren gaineko zergaren zergadunek mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertainetan inbertsioa egiteagatik aplikatu dezaketen ezohiko kenkariari dagokionez. Horrela, zehazten da funts horiek ez dutela eskubiderik emango kenkari hori pertsona edo erakunde bati baino gehiagori aplikatzeko.

2. artikuluan, hiru neurri ezartzen dira enpresen zergapetzearen arloan. Batetik, sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua egitera behartuta dauden enpresentzako babes-neurri bat ezartzen da, eta ordainketa hori egitetik salbuesten dira beren eragiketa-bolumena nabarmen murriztu zaien erakundeak. Hori dela eta, ez zaie eskatuko etekinen gaineko zerga aurretiaz ordaintzeko, seguruenik ez dutelako etekinik eskuratuko. Neurri horrek ez du eraginik izango talde fiskaletan ez ondare-sozietateetan, eta, beraz, aplikatzekoak diren arau orokorrekin bat egin beharko dute 2020ko ekitaldiari dagokion ordainketa zatikatua .

Bestetik, 2019an hasitako ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko araubidea aldatzen da, ekitaldiko urteko kontuen formulazioa eta onespena egiteko epea martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoarekin bat egin duten zergadunentzat (COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurriei buruzkoa). Errege-dekretu lege hori maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Dekretu Legearen bidez aldatu zen (haren bidez, neurri osagarriak hartzen dira nekazaritza, zientzia, ekonomia, enplegua eta gizarte-segurantzaren arloetan, COVID-19aren eraginak arintzeko). Artikulu horietan, zuzenbide pribatuko pertsona juridikoei eta sozietate anonimo kotizatuetako gobernu-organoen funtzionamenduari aplikatzekoak diren aparteko neurriak ezartzen dira. Besteak beste, urteko kontuak formulatzeko epeak eteten dira, eta, horrekin bat, kontuok onesteko epeak atzeratzen. Alde batetik, 19/2020 Errege Dekretu Legearen bidez beste aldaketa batzuk egiten dira arlo horretan, eta ezartzen da urteko kontuak eta legez nahitaezkoak diren gainerako dokumentuak egiteko ezarrita dagoen hiru hilabeteko epea 2020ko ekainaren 1etik hasiko dela zenbatzen, ez alarma-egoera amaitzen denetik. Beste alde batetik, adierazten da urteko kontuak onesteko epea bi hilabetekoa izango dela, formulatzeko epea amaitzen denetik. Merkataritza arloko epeak etetea kontuan hartu zen COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarriei buruzko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailean. Izan ere, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioak aurkezteko epearen aukerako luzapen bat onartzen zaie, salbuespen gisa, mikroenpresa eta enpresa txiki horiei.

Foru-dekretu arauemaile honek kontuan hartzen ditu merkataritza arloko epe horien luzapenek dituzten eraginak sozietateen gaineko zergaren aitorpena egiteko ezohiko epe horiek dimentsioagatik erabili ezin dituzten enpresetan. Eta, beraz, aukera ematen die une horretan dauzkaten urteko kontuekin egindako aitorpena aurkezteko, baldin eta urteko kontuak ezin izan badituzte onartu zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu aurretik. Zergadun horiek autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko dute kontuak onartu ondoren; horretarako gehieneko epea 2020ko azaroaren 25a da.

Azkenik, ezartzen da 2020an sinatu edo berriro negoziatu diren finantza-errentamenduko kontratuetan ondasunaren kostua berreskuratzeko kuota gero eta txikiagoak ezarri ahal izango direla, eta, era berean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoa aplikatu.

3. artikuluan beste neurri bat jasotzen da, osasun-langileen zuzeneko zergei eragiten diena, eta helburu hau duena: doako aseguru kolektibo bat eratzea osasun-langi le guztientzat, COVID-19aren ondoriozko gaixotasun eta heriotzei aurre egiteko. Ehun aseguru-entitatek baino gehiagok funts solidario bat eratzeko ekarpen handia egiteko konpromisoa hartu dute. Haren bidez, bizi-aseguru kolektibo baten harpidetza egingo da, alde batetik, doan estaltzeko krisi sanitario honetan herritar guztien osasuna zaintzen dutenen heriotza, eta, beste alde batetik, ospitalerazten direnentzako subsidio bat ezartzeko, 2020ko martxoaren 14tik irailaren 30era bitartean. Funts horren xede izango diren osasun-langileak hauek dira, besteak beste: medikuak; erizainak; erizain-laguntzaileak; ospitale, osasun-zentro eta larrialdi-zerbitzu publikoetan eta ospitale pribatuetan lan egiten duten zelatariak eta anbulantziatako langileak; eta adinekoen egoitza publiko eta pribatuetako langileak. Horrela, foru-dekretu arauemaile honen bidez,

salbuetsi egiten dira kontingentzia horien ondorio diren prestazioak, hala pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan nola oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan.

4. artikuluari dagokionez, salbuespen gehigarri bat gehitu da ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien kuota mailakatuari eragiten diona. Salbuespen hori luzamenduak formaliza-tzeko eskriturretan aplikatuko da, bai legezkoetan, bai ohikoetan –sektoreko esparru-akordio baten babesean sinatu direnetan–, erakundeek zorrak geroratzeko neurri horiek hartzea erraztu eta sustatzeko neurri gisa.

Azkenik, 5. artikuluari dagokionez, tributuak aplikatzeko lankidetzaren alorrean, bereziki tributu arloan garrantzia duten datuen isilpekotasunari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 94.1. artikuluan lankidetzan aritzeko beste kasu bat ezartzen da, Gizarte Segurantzako bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kotizazio gabeko pentsioaren kudeaketaz arduratzen diren entitateekin.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikulua 2. apartatua jasotakoa kontuan hartuta eta agintariek neurriak azkar hartu behar dituztenez —ahal den neurrian COVID-19ak eragindako salbuespeneko egoera arintzeko—, beharrezkoa da foru-dekretu arauemailearen bidea erabiltzea; izan ere, hala, arau honetan jasotako neurriek berehalako eragina izatea lortuko da. Dena dela, foru-dekretu arauemaile honen edukiaren berri eman behar zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2020ko ekainaren 16ko bilera eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Aplikazio-eremua COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemaileko okerrak zuzentzea.

Aldaketa hauek sartzen dira COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailean:

Bat artikulua 2 zenbakiko a) letra aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«a) 2020ko ekitaldiko zerga-oinarri negatiboa konpentsatzeko.

Kasu honetan, ulertuko da zerga-oinarri negatiboa zatiketa honetan ateratako emaitzaren bestekoa den zenbatekoan konpentsatu dela: helburu honetarako erabiltzen den kuota efektiboaren ezohiko kenkaria zati erakundeari 2019ko ekitaldian dagokion karga-tasa.

Letra honetan ezarritako moduan kuota efektiboaren ezohiko kenkariaren bidez konpentsatu den 2020ko zerga-oinarri negatiboa ezin izango da konpentsatu hurrengo zergaldietako errenta positiboekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 55. artikuluan jasotako prozeduraren bidez.»

2. Bi artikulua Bat. zenbakiko d) letra aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«d) Kenkari hau aplikatzeko, ez da ezarriko foru-dekretu arauemaile honen 1. artikulua Hiru apartatuaren 9. zenbakiko lehenengo paragrafoan xedatutakoa, ezpada zenbaki bereko bigarren paragrafoan ezarritakoa, honi dagokionez: funts berberak ezingo dute sortu kenkaria pertsona edo entitate batek baino gehiagok aplikatzeko eskubidea.»

2. artikulua. Aplikazio-eremua COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemaileko okerrak zuzentzea.

Bat.Ordainketa zatikatua.

2020an, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 130bis artikuluan aipatzen den ordainketa zatikatua ez dute egin beharko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1. Bat artikuluko 1. zenbakiaren a), b) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zergadunek (4/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ostean ekonomia suspertzeko koiunturazko tributu-neurri buruzkoa).

Dos. Zenbait kasutan sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko arau osagarriak

1. Urteko kontuak dagokien zergaldia amaitu eta 6 hilabete igaro ondorengo epe batean onetsi dituzten sozietateen gaineko zergaren zergadunek (COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurri buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren 40. eta 41. artikuluetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz), baldin eta ez badute aplikatzen COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarri buruzko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. artikuluko sei zenbakian ezarritakoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikuluan 1. apartatua aurreikusten den epean aurkeztuko dute ekitaldi horri dagokion zergaldiko zergaren autolikidazioa.

Autolikidazioa aurkezteko borondatezko epea amaitzen denean, dagokion organoak ez baditu urteko kontuak onetsi, aurreko paragrafoan adierazitako aparteko epeari heldu ez dioten zergadunek eskuragarri dauden urteko kontuekin egingo dute autolikidazioa.»

Helburu horretarako, hauek joko dira eskuragarri dauden urteko kontutzat:

- a) Sozietate anonimo kotizatuentzat, 8/2020 Lege Dekretu Legearen 41. artikuluan 1. apartatuko a) letran aipatzen diren urteko kontu auditatuak.
- b) Gainerako zergadunentzat, urteko kontu auditatuak, edo, halakorik izan ezean, dagokion organoak formulatutako urteko kontuak. Dagokion organoak ez badu konturik formulatu, Merkataritzako Kodean ezarritakoaren arabera egin behar dute euren kontabilitatea, edo, bestela, haiei aplikatzen zaizkien arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Helburu horretarako, ulertuko da ez dutela beteko apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 3. Sei artikuluan xedatutakoa (COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoriozko ezohiko tributu-neurri osagarri buruzkoa) sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa epe horretan aurkeztu dezaketelako epe barruan aurkeztu duten zergadunek (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikuluan 1. apartatua ezarritako epearen barruan), apartatu honetan ezarritakoarekin bat.

Sartu behar den kopuruak berandutze-interesak sortuko ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan xedatutakoarekin bat, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikuluko 1. apartatua aurreikusitako epea amaitzen den egunaren hurrengo egunetik hasita.

- c) Aurreko letran sartzen ez diren kasuetan, autolikidazio berriak aurkeztu den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez da aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 118. Artikuluan 2. apartatua ezarritakoa, ezta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa ere (Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori). Era berean, ez dira mugatuko administrazioak lehenengo autolikidazioa eta autolikidazio berria egiaztatze dituen ahalmenak.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, autolikidazio berriari dagokionez ez dira aplikatuko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan jasotzen diren aukeren zuzenketa egiteko mugak.

2. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatuzetik eratorritako kopuruak itzuli behar badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 129. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Horretarako, aurreko apartatuan autolikidazio berria aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen 6 hilabeteko epea.

Adierazitakoa gorabehera, aurreko apartatuko b) letran aipatzen den zuzenketaren ondorioz kopuru bat itzuli behar bada aurreko autolikidazioan egindako sarrera bat dela eta, atzerapen-interesak sortuko dira kopuru horren gainean. Epe honetan sortuko dira interes horiek: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. artikuluan 1. apartatuan borondatezko aitorpena egiteko adierazitako epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasi, eta kasuan kasuko itzulketara jasotzeko eskubidea aitortzeko erabakia hartzen den egunera arte.

3. Administrazioak Bi apartatu honetan aipatzen diren arauekin bat zergapekoek aurkeztutako autolikidazioak egiaztatu ahal izango ditu, eta kasu bakoitzean dagokion likidazioa egingo du. Zehazki, ez da ondorio preklusiborik eratorriko aurreko 2. Zenbakiko b) letran jasotako zuzenketetatik.

Hiru. Finantza errentamenduko kontratuak.

Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 5ko 11/2013 Foru Arauaren 18. artikuluan jasotakoa aplikagarri izango zaie 2020an berriro negoziatzen edo sinatzen diren finantza errentamenduko kontratuei, nahiz eta haiek ez bete artikulu horretako 1. apartatuko f) letran jasotako beharrezkoak.

3. artikulua. Osasun-langileentzako doako aseguru kolektiboa.

2020an, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira COVID-19aren ondoriozko gaixotasun eta heriotzen ondoriozko prestazioak, hurrenez hurren. Prestazio horiek osasun-langileentzako doako aseguru kolektibotik (aseguru-entitateek Unión Española de Entidades Aseguradoras y Reaseguradoras erakundearen bidez sinatua) edo aseguru-entitateek sinatutako antzeko ezaugarriak dituen beste edozein doako aseguru kolektibotik eratorriak izan daitezke.

4. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga

41. zenbakia gehitzen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauko 58. artikuluari, eta honela geratzen da edukia:

«41. Luzamenduak formalizatzeko eskriturak, hala martxoaren 17ko 8/2020 Errege Dekretu Legearen 13.3. artikuluan aurreikusitakoak (COVID-19aren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurriei buruzkoa) nola martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 24.2. artikuluan aurreikusitakoak (haren bidez, presazko neurri osagarriak hartzen dira esparru sozial eta ekonomikoan, COVID-19ari aurre egiteko), eta COVID-19aren ondorioz sortutako osasun-krisia dela eta sinatu diren sektoreko esparru-akordioen babesean emandako ohiko luzamenduak (maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Dekretu Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoak).»

5. artikulua. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 94.1. artikuluari t) letra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«t) Maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Dekretu Legean ezarritako Gizarte Segurantzako bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kotizazio gabeko pentsioen kudeaketaz arduratzen diren entitateekin lankidetzak.»

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena.—Indarrean jartzea

Foru-dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak.

Azken Xedapenetako Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza

Ahalmena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari, foru-dekretu arauemaile hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken Xedapenetako Hirugarrena. Batzar Nagusiei igortzea

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, foru-dekretu arauemaile honen onespeneraren berri emango zaie Batzar Nagusiei, berrets dezaten.

Bilbon, 2020ko ekainaren 16an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ